

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskararen agerizko erabilera

Mugarik gabeko Europar Batasunean zehar berebidez datorren gidariak nola jakin lezake Bizkaiko Itsasoaren hegian dagoen herri honetan frantsesez eta gaztelaniaz gainera euskaraz ere hitz egiten dela?

Euskal Herria egun batean zeharkatzen duen bidaiariak nekez antzemango dio. Ipar Euskal Herrian frantsesa delako ia erabateko jaun eta jabe. Oso arretatsua bada, hegoaldean antzeman lezake gaztelaniaren ondoan noizbehinka agertzen dela beste hizkuntza bat k-z eta z-z josita.

Euskal Herrian egun batzuk igarotzea erabakitzen duen bidaiariak, ostera, laster igarriko dio bai, bigarren hizkuntza horren agerizko erabilera nabarmenagoa egiten zaiola, Hego Euskal Herriko zenbait tokitan batez ere.

Geroz eta ageriago

Demokrazia herri erakundeetara iritsi eta Eusko Jaurlaritza sortu zenetik batez ere, hamaikatxo ahalegin egin dira euskararen agerizko erabilera areagotzeko bide seinaleetan, dendetako errotuluetan, publizitatean, komunikabideetan, etab. Hala ere, komeni baino gehiagotan bakoitza bere aldetik ibili denez, azken urteotan erakundeen arteko elkarlana

bultzatu da, besteak beste hizkuntza irizpideak normaldu eta bateratzeko. Elkarlana hasi da fruituak ematen: Euskal Herriko herri erakundeen tokietako errotulazioa, bide seinaleak, zerga alorreko inprimakiak, kalitate labela daramaten etiketak, etab. bateratu egin dira.

Asko dago eginkizun

Egindakoa kanpoko bidaiaria euskararen erabileraz ohartarazteko bestetxo izan bada ere, asko da egiteko dagoena oraindik, Euskal Herrian bizi diren euskaldunei begira batez ere. Eusko Jaurlaritzaren

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak elkarlana sustatzeko erabakiak hartu ditu Euskal Autonomi Elkarteke gasolindegia eta IAT/ITVekin euskara zuzenaren erabilera errotuluetan, gidaliburuetan eta publizitatean bermatzeko. Beste alorretan antzeko erabakiak hartuko ditu, beti ere euskararen agerizko erabilera areagotzeko helburuarekin.

Euskaldunak ezezik, Euskal Herria pasadan zeharkatzen duen bidaiaria ere berehala ohartuko da euskararen herrian zehar doala.



Hego Euskal Herrian nabarmenagoa da euskararen agerizko erabilera

Salbador Zapirain, "Ataño"

Salbador Zapirain, Ataño, 81, fraide kaputxinoak hamabi liburu argitaratu ditu dagoeneko. Urtero bat plazaratzen du. Marka aipagarria idazteari 68 urterekin ekin ziola gogoan hartuz gero.

Errenteriko Bordaxar baserrian jaioa eta hazia, bederatzirte igaro zituen apaiz ikasketak egiten, 1936ko gerrak harrapatu zuen arte. Lau urtetan hiru espetxe ezagutu ondoren, gerraoste latza bizi izan zuen, han eta hemen lan eginez. Istripuz zendutako anaia baten heriotzak errotik aldatu zuen bere bizitza: 32 urterekin Ataño kaputxinoen komentura jo zuen bake bila. Zangotzan, Lekarozan, Donostian eta Hondarribian lanean eta otoitzean igaro zituen ondorengo urteak.



Salbador Zapirain "Ataño"

Artean aita bizi zela, haren bizitza idazteari ekin zion. Eskuizkribua Aita Zavalaren eskuetara heldu zen eta hari ikaragarri gustatu, Auspoa Liburutegian argitaratu eta harrera ezin hobea izan zuen. Nor ote izenik ez zuen Ataño hura?

Txantxangorri kantariak, hori zuen-eta izena lehen liburu hark, bigarren argitaraldia ezagutu du orain dela gutxi. Hondarribiko kaputxinoen komentuko baratzeko ardura duen Salbador Zapirainek gogoz dihardu berandu aurkitu duen zaletasunean: baratzean baserritarra, komentuan otoitz-gizona eta bere gelatxoan idazle. Berandu oratu zion lumari, baina osasuna duen bitartean idazten segitzeko asmo sendoa duela aitortzen du.

Hirigintza hiztegia

Xanti Iruretagoienak zuzendua, UZEIk Hirigintza Hiztegia argitaratu du Elkar argitaletxean.

Hiztegiak bi zati ditu: lehenean hitzen sarrerak euskaraz ematen dira, definizioekin eta gaztelaniazko eta frantsesezko ordainekin; bigarrenean gaztelania-euskara (1.456 sarrera) eta frantsesa-euskarako (700 sarrera) zerrenda alfabetikoak azaltzen dira. Aukeratu diren kontzeptu gehienak Bidasoaz honuntzaldean erabiliak dira. Hori dela eta, frantsez ordainak gutxiago dira eta ingelesezkorik ez da ematen.

Hirigintza Hiztegiaren erabiltzaile nagusiak. hauek izango dira: hirigintza munduko profesionalak, administrazioko jendea, fakultateetako irakasleak eta ikasleak, eta kazetariak.

Honekin denetara berrogei hiztegitik gora argitaratu ditu UZEIk.

Bilintx megadenda ireki da Donostian. Era eta neurri honetako (hamar langile, 800 m2 bi solairutan eta larunbat eta igandeetan ere zabalik) lehen denda izanik, liburuak, diskoak, bideoak, egunkariak, aldizkariak eta joko didaktikoak saltzen ditu. Orain 18 urte sortua, Bilintxek Bilbon, Iruñean, Bergaran, Irunen eta Tolosan ditu dendak.

Pertsona eta leku izenak euskaraz nola idatzi behar diren eztabaidatzeko Euskaltzaindiak Exonomastikaren V. Jardunaldiak antolatu zituen Miarritzen, uztailearen 1ean eta 2an. Bi egunetan zehar hitzaldi eta txosten asko aurkeztu ziren. Mahainguru bat ere egin zen Elhuyar, Lur, Euskaldunon Egunkaria, Elizarteko eta Elizbarrutiko ordezkariekin. Azken erabakiak urriko biltzar nagusian hartuko dira.

Elebitasuna mesedegarria da. Euskara eta gaztelania dakiten ikasleek erraztasun handiagoa dute beren ikasketetan emaitza hobek lortzeko gaztelania bakarrik dakitenek baino. Era berean, askoz ere errazago ikasten dute hirugarren hizkuntza bat, ingelesa kasu. Hori dio IVAP/HAEEK argitaratu duen Hezkuntzaren eraginkortasuna eta irakaskuntza elebiduna Euskal Herrian liburuak.

McDonald's menua braillez eta euskaraz. Hemendik aurrera hanburgesak patata frijituekin gustoko dituzten itsu euskaldunek ere aukera izango dute Bilbondoko McDonald's hanburgesian jatekoa braillez eta euskaraz eskatzeko. Braille itsuek irakur dezaten erliebean dagoen idazkera-mota da. McDonald'sek ekainean jarri du sistema hau baita gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz ere.

Euskarazko herri-prentsak 300.000 irakurle ditu

- Euskarazko herri-aldizkariak 35etik 40ra igaro dira urtebetean.
- Bi astekari berri plazaratu dira (Irutxulo Donostian eta ... eta kitto Eibarren), hamabostekari bat, hilabetekari bat eta hiruhilabetekari bat.
- Guztien tirada orokorra

20.000 aletan gehitu da. Beraz, 60.000 irakurle gehiago ditu iaz baino. 300.000 lagunek irakurtzen dutela esan daiteke.


- Kategoria guztietan Gipuzkoan argitaratzen dira aldizkari gehien. Tirada handien duena Irutxulo da: 7.000 ale.

Jean Pierre Etxeberri, 37, iholdiarra, Ipar Euskal Herriko eskola pribatu kristauetan elebitasuna bultzatzen duen Euskal Hazia elkarteko zuzendaria da.

Josu Jon Imaz, 30, zumarragarrak TGDDM/m PDA esposi nahasteen kimierreologia eta sendotze-zinetika. Portaera fisikoa egoera solidoan izeneko doktorego tesia aurkeztu zuen euskaraz Donostiako Ingeniaritza Teknikoko Eskolan. Josu Jon Imaz europarlamentari aukeratua izan zen Europarako azken hauteskundeetan EAJren zerrendetan.

Richard Jefferies, Zeelanda Berriko Maorien Garapenerako Ministeritzako aztertzaile politikoak Euskal Herria bisitatu zuen ekainean. Interes berezia erakutsi zuen gaztetxoekin inmersio programak eta irakasleak prestatzekoak ezagutzeko.

Bi euskaldunetatik batek irakurtzen du euskarazko herri-prentsa



Maiztasuna	Zenbat	Tirada
Astekaria	8	33.600
Hamabostekariak	6	18.800
Hilabetekariak	13	33.660
Bestelakoak	13	15.000
Guztira	40	101.060

Iturria: José Félix Díaz de Tuesta

Argitalpenak

Euskara Araban

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Joseba Intxaustiren liburuska hau argitaratu du. Zazpi ataletan egileak euskaraz Araban bizi izan dituen aldaketen berri ematen du, eta hainbat datu eskaintzen ditu gaur egungo egoera soziolinguistikoaz. Bilduma honetako gainerako liburuetan bezala, mapak eta argazkiek garrantzi handia dute.



EUSKARAREN BERRIPAPERAZ zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako
Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:
.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka

Familiaren egitekoa

G. Zein da familiaren egitekoa hizkuntzaren ondorengotaratzean?

E. Hizkuntza gutxituen biziraupena beren gune naturalari dago estu lotuta, famili bidezko hizkuntza igarobideari batez ere.

Familiaren garrantzia ukaezina da ikuspegi, ezberdinetatik begiratuta:

- Familia da belaunaldien arteko hizkuntza iraganbiderik garrantzitsuena, errazena, merkeena eta eraginkorrena.

- Familiako hizkuntza sentimenduen eta norberak barneratzen duen mundu sinbolikoaren hizkuntza da.

- Familian ikasi dutenak izaten dira, hizkuntza gutxiengotua gehien ezagutu eta erabiltzen duten hiztunak.

Beraz, behar-beharrezkoa da guraso biak edota gurasoetako bat euskalduna denean seme-alaben lehen hizkuntza bakarrik edo erdararekin batera, euskara izan dadin, zenbait egitarau garatzen hastea.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Euskal Hazia, elebitasuna eskola kristauetan

Euskal Hazia Ipar Euskal Herriko eskola pribatu kristauetako guraso eta irakasle zenbaitek euskara eskolan bultzatzeko asmoarekin 1982an sortutako elkarte da. Baionako Eskola Gristinoen Zuzendaritzan du egoitza.

Gaur egun A eta B irakaskuntza elebidun ereduak lantzen ditu. A ereduan (ikasleek euskaraz ikasten dute bizpahiru orduetan) 1.500 haur dituzte. B ereduan, ordea, (ikasleek egun erdiz euskaraz eta egun erdiz erdaraz ikasten dute) 650 haur.

Eskolaurrean Iparraldeko eskola pribatuetako haurren %41ek eredu elebidunetan ikasten du. Lehen mailan (6 eta 10 urte artekoak), haurren %31k.

Euskal Haziaren diru-iturririk nagusienak hauek dira: Pabeko Kontseilu Orokorretik, 1.700.000 pta. urtean; urtero antolatzen

duen festatik 300.000 pta; eta Irakaskuntza Katolikorako Elizbarrutiaren batzordetik 120.000 pta.

Euskal Haziak 25 irakasle ditu, euskara hutsean irakasten dutenak. Irakasle hauen euskara aldetiko prestakuntza hobetu nahian, Euskal Hazia harremanetan da EHUko Donostiako Irakasle Eskolarekin, hemengo zenbait espezialistak haien prestakuntzan esku har dezaten. Erakunde biek EHUko bi irakasle urtebetez Iparraldera bidaltzeko eskaria luzatu diote Akitaniako Kontseiluari.

Seaska eta Ikas-Bi elkarteekin batera, egindako elkarlanari esker, bestalde, aurreko lehen aldiz Brebet azterketan euskaraz ikasi duten ikasleek Historia eta Geografiako azterketak bederen euskaraz egiteko eskubidea lortu dute frantsez gobernutik.

✓ Kontutan hartzeko

- **Igartza Saria.**

Beasaingo Udalak eta CAF enpresak Igartza Abentura eta Misteriozko Nobela I. Lehiaketa eratu dute. Sarituak 500.000 pta. irabaziko ditu. Elkar argitaletxeak saritutako lana argitaratuko du. Lanak aurkezteko azken eguna: irailaren 30a.

- **Burdinola Saria.**

Euskoiker Fundazioak

Burdinola I. Saria euskaraz egindako zientzi eta giza zientzi lanetarako antolatu du. Lanak aurkezteko epea, urriaren 31. Tfnoa.: (94) 444 92 35.

- **Elhuyar Sariak.**

Elhuyar elkarteak zientziaren zabalkunderako sariak antolatu ditu. Izenak emateko epea azaroaren 1ean bukatzen da. Berri gehiagorako, dei egin (943) 36 30 40 telefonora.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA